

+ERLATIBO OKERRA I

Zehar-galderaren tokian sartzen den erlatiboa

Zehar-galderaz emateko diren perpaus batzuetan, erlatibora jotzen da, inguruko erdaren eraginez. Esate baterako, “Bazekiten egiten zutena” esaten dugu “Bazekiten zer egiten zuten” edo “Bazekiten zertan ari ziren” esan ordez.

- a) *Ez dago garbi **egin behar duena**.
- b) Ez dago garbi **zer egin behar duen**.

Erlatiboak esangura interrogatiboa badauka, eman dezagun zehar-galdera bidez:

- a) *Ez dakit Maddalenek **lan egiten duen Zuzendaritza**.
- b) Ez dakit **zein Zuzendaritzatan egiten duen lan** Maddalenek.

- a) *Abokatuak argi eta garbi adierazi zien **agiriak izapidetu beharreko modua**.
- b) Abokatuak argi eta garbi adierazi **zein nola izapidetu behar zituzten agiriak**.

Ariketa

Zuzen edo egoki itzazu esaldiak “Zehar-galderaren tokian sartzen den erlatiboa” artikuluko proposamenen arabera.

1. Eskatutako datu pertsonalez gain, adierazi egin behar da jaso nahi diren aldizkariaren ale-kopurua.
2. Argi bereizi behar da mezuak dituen ezaugarriak, mezua igortzen duena, jasotzen duena, eta abar.
3. Arrastiko batzarrean azalduko digute Justizia Administrazioa sare eremuan txertatzeko aldatuko dena.
4. Filmeko protagonistek bazekiten gerta zitekeena eredu ekonomikoa eta soziala errotik aldatu ezik, eta, hala ere, ez zuten ezer egin hori konpontzeko.
5. Sekulako leizea dago: administrazioak ez daki gazteek nahi dutena eta gazteek ez dakizkite, esaterako, administrazioak ematen dituen laguntzak.
6. Ez dakit mota horretako agentzien barruan dagoena, eta ez dagokit gainera hori esatea.

Zuzenketa orria

1. Eskatutako datu pertsonalez gain, adierazi egin behar da aldizkariaren **zenbat ale** jaso nahi diren.
2. Argi bereizi behar da mezuak **zer ezaugarri dituen** mezuak, **nork igortzen duen** mezua, **nork jasotzen duen**, eta abar.
3. Arrastiko batzarrean azalduko digute Justizia Administrazioa sare eremuan txertatzeko **zer aldatuko den**.
4. Filmeko protagonistek bazekiten **zer gerta zitekeen** eredu ekonomikoa eta soziala errotik aldatu ezik, eta, hala ere, ez zuten ezer egin hori konpontzeko.
5. Sekulako leizea dago: administrazioak ez daki gazteek **zer nahi duten** eta gazteek ez **dakite**, esaterako, administrazioak **zein laguntza** ematen dituen.
6. Ez dakit mota horretako agentzien barruan **zer dagoen**, eta ez dagokit gainera hori esatea.